

MERKATUEN SEGMENTAZIOA

Gure produktua arbela garbitzailea denez, gure bezeroak arbelak erabiltzen dituzten instituzio guztiak izango dira, hala nola, ikastetxeak edota hainbat enpresa.

Ikastetxeetan irakasleek gain, adin guztietako haur, ume eta nerabeak daude 6 urtetatik 18 urtera eta horregatik, adin guztietarako egokituta dagoen produktua salduko dugu, denon osasuna hobetzera bideratuta dagoena. Ikastetxeek gain, eskola, institutu eta akademietan ere salduko dugu produktua, adin eta irakaskuntza mota batera egokituta daudenak.

Bezero mota hau hautatu dugu gu ikasleak garelako eta gure egunerokotasunean arbelak erabiltzera ohituta gaudelako, ikastetxean. Gainera, beharrezkoa iruditzen zaigu gailu honen erabilera eskola, institutu eta abarretan; izan ere, bereziki irakasleen lana eraztuko du eta ume zein langileen alergia aukerak prebenitu.

Irakaskuntzan aritzen diren instituzioetatik gain enpresak ere izango ditugu bezero; azken batean, hauetan ere arbelen erabilera oso ohikoa da.

Arbelak dira ikastetxeetan bereziki egunero erabiltzen diren gailuak eta horregatik, erabilera anitza izango duen produktua izango dela aurreikusten dugu nahiz eta gailu bakar batek arbela bat garbitzeko urte asko iraun dezakeen. Gainera, gure produktuarekin gure bezeroei erosotasuna eta higiearen areagotzea ziurtatu nahi diegu.

Azkenik, gure merkatu-mota segmentatua dela esan genezake; izan ere, talde desberdinak dira gure produktua erosiko dutenak, ikastetxeak eta enpresak, esan bezala. Halere, bi instituzio hauek ezaugarri batzuk partekatu egiten dituzte, hala nola arbelak erabiltzen dituztela. Hortaz, gure produktua mesedegarria izango da bientzako.